

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARKAUTIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onespena ematea Ediarreta kiroldegiaren eta bolatokiaren erabilera arautzen duen ordenantzari

Kontzeju honek, 2021eko ekainaren 21eko bilkuran, hasierako onespena eman zion Ediarreta kiroldegiaren eta bolatokiaren erabilera arautzen duen ordenantza onesteko espedienteari. Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean ez zenez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onesten da. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, osorik argitaratzen da indarrean sar dadin.

EDIARRETA KIROLDEGIAREN ETA BOLATOKIAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. artikulua

Kiroldegi estalia eta bolatokia Arkautiko Kontzejuko jabari eta erabilera publikoko ondasunak dira, eta Arkautiko 20. poligonoan katastroko 37 zenbakia duen lur zatian kokatuta daude. Kirol, kultura eta gizarte helburuak dauzkate batik bat.

2. artikulua

Ordenantza honen xedea, tasa eta prezio publiko egokiak ezartzeaz gain, arau multzo bat formulatzea da, kiroldegiaren eta bolatokiaren barnean kirol, kultura eta/edo gizarte jarduerak planeatzeko helburuarekin, onura hauek ekarriko dituelakoan:

- a) Instalazioak zentzunez eta ordenaz erabiltzea.
- b) Badauden baliabideen aprobetxamendu integrala.
- c) Jarduerak koordinatu eta kontrolatzea.

3. artikulua

Edozein jarduera egiten dela ere, Arkautiko Administrazio Batzarrak administrazio izaerako nahitaezko esku hartzea egingo du, arautzea, jarduera kontrolatu eta zainduko du, eta agintaritzak eskatzen duten eta udalaren eskumenekoak diren gainerako funtzioak beteko ditu.

4. artikulua

Arkautiko Administrazio Batzarrari dagozkio bakarrik, Kontzeju Irekian onartuta, hauek:

- a) Ordenantza hau onartu, aldatu edo indargabetzea.
- b) Kirol, kultura eta/edo gizarte jardueren garapena sustatzea.
- c) Hura erabili eta gozatzeko prezio publikoak eta tasak ezartzea.
- d) Dirulaguntzak eta bestelako laguntzak eskatu eta onartzea.
- e) Erakundeekin hitzarmenak egitea, Ediarreta kiroldegia eta bolatokia erabili eta gozatzeko.
- f) Ordenantza hau interpretatzea eta sor litezkeen zalantzak argitzea.
- g) Kiroldegiaren eta bolatokiaren erabilera bertan behera uztea erabakitzea, baldin eta erabilera okerra ematen ari bazaie.

5. artikulua

Instalazioetan antolatzen diren kirol, kultur eta gizarte ekitaldietara sartzea, oro har, libre eta dohainik izango da.

Sarrera ordaintzea beharrezkoa den ekitaldiak/jarduerak egiteko, administrazio batzarraren berariazko baimena beharko da, idatziz eta aldez aurretik.

6. artikulua

Ez da baimentzen esparruan animaliarik sartzea. Debeku honetatik itsu txakurrak salbuetsiko dira, baldin eta identifikatuta badoaz, lanean ari badira, eta higiene eta osasungarritasun baldintzak betetzen badituzte, itsu txakurrekin doazen ikusmen urriko pertsonen ingurunerako irispidea arautzen duen urriaren 8ko 10/1993 Legeak xedatzen duenez.

7. artikulua

Erabiltzaileen jokabide arauak:

a) Uneoro errespetuzko jarrera izan behar dute gainerako erabiltzaileekin, esparruaren erabilera galarazi edo oztopatu gabe.

b) Instalazioak eta materiala ondo zaindu behar dira.

c) Debekatuta dago erretzea instalazioen barruan.

d) Sakelako telefonoak modu arduratsuan erabili beharko dira eraikinean.

e) Erabiltzaileek eskura eta jakitun egon daitezten dituzten higiene eta desinfekzio arauak errespetatu eta gauzatuko dituzte. Erabiltzaile bakoitzaren ardura izango da higiene eta desinfekzio pertsonala.

8. artikulua

Erabiltzaileek eskubidea dute instalazioak erabiltzeko, haien izaeraren arabera, baimendutako jardueren arabera, federazioen arauen arabera, eta instalazioen erabilera arautzen duen ordenantza honen arabera.

Erabiltzaileek eskubidea dute errespetuz tratatuak izateko, eta instalazioak ahalik eta baldintzarik onenetan erabili eta gozatzeko.

Kirol instalaziora sartzean erabiltzaileak instalazioak hondatuta daudela edo zerbait falta zaiela antzematen badu, berehala jakinarazi beharko dio administrazio batzarrari.

9. artikulua

a) Erabiltzailearen betebeharra da kiroldegia edo bolatokia erabiltzeko ezarritako tarifak edo prezioak ordaintzea, ordenantza honetan agintzen den moduan.

b) Erabiltzaile kolektiboaren betebeharra da, aurretik baimendutako ekitaldi soziokulturalak, jostetakoak edo kirolekoak egiteko asmoz instalazioak erabiltzen dituztenean, agintari eskudunei nahitaezko baimenak eskatu eta lortzea, baita jarduera horietarako istripuetako eta erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzea ere.

10. artikulua

Edozein erabiltzailek eskubidea izango du egoki irizten dien erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko administrazio batzarrean.

11. artikulua

Instalazioen erabiltzaileek konpromisoa hartzen dute hura osatzen duten ondasun higikor eta higiezin guztiak errespetatzeko. Haietan nahita edo gaizki erabiltzeagatik egiten diren kalteak egileek konpondu beharko dituzte.

Administrazio batzarrak beretzat gordetzen du bide judizialera jotzeko eskubidea, kalteak eta balizko kalte ordainak erreklamatzeko.

Erabiltzaileek erabiltzen duten material guztia jarri eta kendu beharko dute, eta instalazioak aurkitutako moduan utzi.

12. artikulua

Ordenantzaren araudiaren aurkako portaera daukan edo ohitura onak, pertsonen duintasuna eta une horretan instalazioan dauden pertsonak edota ondasunak errespetatzen ez dituen erabiltzaile edo ikusle orori instalaziotik joateko aginduko zaio.

13. artikulua

Instalazioak kirola egiteko eta beste jarduera batzuetarako erabiltzen dituzten pertsona, erakunde, elkarte eta abarrekoak honela sailkatuko dira:

a) Erakundean errolatutako bizilagunak, etxe irekia duten bizilagunak eta horien lehen mailako odol eta ezkontza ahaidetasuneko senideak.

b) Ohikoak, hau da, instalazioak aldi behin edo sarri erabiltzen dituzten erabiltzaileak, beren jarduerak programatuta dituztelako.

c) Noizbehinkakoak, erakundekoak ez diren erabiltzaileak.

14. artikulua

Lehentasuna izango dute administrazio batzarrak sustatutako ekitaldi edo jarduerak, alde aurretik eraikinean bertan edota herriko beirateetan kartelak jarri, eta kontzejuko web orrian (<http://www.arkaute.org>) iragarriko direnak.

Jarduerak garatzean, lehentasun hori izango dute, halaber, erakundean egoitza duten irabazteko xederik gabeko gizarte, kultura, jolas edo kirol elkarteek, udalerriko bizilagunei zuzendutako era guztietako jarduerak garatzeko, administrazio batzarraren alde aurreko baimenarekin. Baita erakundeko bizilagunek banaka sustatutako jarduerak ere.

Zenbait elkartek kiroldegia eta/edo bolatokia erabiltzeko eskaerak aurkezten dituztenean, ordutegi ezberdinetan bateragarriak ez badira, lehentasuna emango zaio eskaera lehenago aurkeztu duenari. Irizpide bera erabiliko da dirua irabazteko xederik gabeko elkarteentzat.

Kiroldegia eta/edo bolatokia erabili nahi duten elkarteek, kirol klubek eta abarrekoek administrazio batzarrarekin harremanetan jarri beharko dute, eta kirol instalazioa erabiltzeko hitzarmen bat sinatu.

15. artikulua

Instalazioak erabiltzeko baimena duen pertsona fisikoa edo pertsona juridikoaren arduraduna arduratuko da hura ireki eta jarduera bakoitza amaitu ondoren ixteaz, eta erabiltzeko baimena eman zaion jarduera amaitzen denetik baimendutako hurrengo erabilera hasi arte irekita egoteagatik sor daitezkeen kalteen erantzule izango da.

Aurrekoagatik, instalazioak erabiltzeko baimena duen pertsonak administrazio batzarrari jakinarazi beharko dio, baimendutako ordutegian sartu eta berehala, lokalean nahiz bertan dagoen ekipamenduan eta altzarietan atzematen duen edozein irregulartasun. Halaber, jakinarazi beharko dio atea irekita aurkitu duela, aurretik erabili duenak ondo itxi ez duelako.

Jarduera jakin baterako aurreikusita eta baimenduta dagoen erabilera denbora amaitutakoan, erabiltzaileek garaiz utzi beharko dituzte instalazioak, batez ere jarraian beste jarduerarik badago.

16. artikulua

Aldagelak erabiltzaileek bakarrik erabiliko dituzte, eta gehieneko iraupena ordu erdikoa izango da, jarduera amaitzen denetik. Aldagelako erabiltzaileek ahalik eta txukuneri utzi beharra daukate.

17. artikulua

Instalazioen erabilera orduka, ikastaroka eta urteka laga ahalko da, erabiltzaileekin hitzarmenak edo akordioak eginez.

18. artikulua

Ediarreta kiroldegira sartzeko eta bertako instalazioak erabiltzeko baldintzak. Ediarreta kiroldegia erabileran, bi erabiltzaile mota hauek definitzen dira:

a) Administrazio batzarrarekin sinatutako akordioak edo hitzarmenak dituzten erabiltzaile kolektiboak. Tarifak, ordutegiak eta ordaintzeko moduak akordioan edo hitzarmenean ezarritakoak izango dira.

b) Gainerako erabiltzaileek dagokien zenbatekoa ordaindu behar dute administrazio batzordearen kontuan.

- Erabiltzaileentzako tarifak Kontzeju Irekian erabakitakoak izango dira.

- Kiroldegia erabiltzeko ordutegia gure kontzejuaren web orrian (<http://www.arkaute.org>) erreserba egitean ezarritakoa izango da, eta sarrera ukatzea erreserbatuta egongo da.

Bolatokira sartzeko eta bertako instalazioak erabiltzeko baldintzak:

a) Erabilera doakoa izango da.

b) Bolatokia erabiltzeko ordutegia 08:00etatik 22:00etara izango da, eta sarrera ukatzea erreserbatuta egongo da.

I. ERANSKINA

IREKIERA ETA ITXIERA, ERRESERBA ETA KOSTUAK

Kirol instalazioek, kiroldegia eta bolatokiak ordutegi hau izango dute: 8:00etatik 22:00etara, asteko egun guztietan.

Erreserbak gure kontzejuaren web orrian horretarako instalatutako aplikazioaren bidez egingo dira: <http://www.arkaute.org>. Edozein arrazoiengatik erreserbak web orriaren bidez egiteko zailtasunak dituen edonor harremanetan jar daiteke administrazio batzarra osatzen duen edozeinekin, haiek izapidetu ahal izan dezaten bere eskaera. Horrela, erreserba egiteko aukera bermatuko zaie hala nahi duten guztiei.

Erreserba bat egiteko gutxieneko denbora unitatea ordubetekoa izango da, eta gehienekoa 2 ordukoa.

Kiroldegia erabiltzeko prezioak, orduka, honela sailkatu dira:

– Arkautin erroldatutako bizilagunak, etxe irekia duten bizilagunak eta horien lehen mailako odol eta ezkontza ahaidetasuneko senideak: 2,00 euro/orduko (argia barne).

– Gainerako publikoa oro har (klubak, federazioak, elkarteak, taldeak eta abarrak barne): 25,00 euro/orduko (argia barne).

Urteko plangintza makrozikloaren barruan ratio/pertzentil bat ezarri da Ediarreta kiroldegian kirol/kultura/gizarte jarduerak garatzeko, arratsaldeko ordutegian (15:00etatik 22:00etara, asteko egun guztietan) orduen ehuneko 65ekoa, Arkautin erroldatutako bizilagunentzat eta horien lehen mailako odol eta ezkontza ahaidetasuneko senideentzat lehentasunezko erreserba gisa. Gainerako ehuneko 35a, berriz, eta ordutegi berberetan, publiko orokorraren erreserbarako, klubak, federazioak, elkarteak, taldeak eta abar barne. Gainerako ordutegietan (8:00etatik 15:00etara) ez da inolako lehentasunik zehazten, eta mundu guztiaren esku geratzen da kirol instalazioa erreserbatzeko aukera.

II. ERANSKINA

SARS-CoV-2ri BURUZKO ERABILERA ETA HIGIENE ARAUDIA

Eranskin hau administrazio publikoek SARS-CoV-2ren pandemiaren egoeraren/bilakaeraren arabera unean-unean ezartzen dituzten protokoloen mende egongo da, eta baliogabetu egingo da estatuko eta autonomia erkidegoetako agintari gorenak pandemiaren amaiera finkatzen duten unetik aurrera, jada ez badira beharrezkoak pandemian zehar hartutako ezohiko neurriak.

Aldagelak, komunak eta biltegia itxita daude. Kiroldegia eta/edo bolatokia bakarrik erabili ahal izango dira.

Une horretan indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko edukiera. Egun, 10 pertsonakoa da.

Erabiltzaile guztiek nahitaez erabili behar dute maskara, eta kirol instalazioaren erabiltzaileak izango dira erantzuleak.

Hidrogela nahitaez erabili behar da, eskuak desinfektatzeko sarreran.

Erabiltzaile bakoitzak modu pribatuan eramango ditu jarduera garatzeko beharrezkoak diren materialak. Ez da material kolektiborik erabiliko.

Kirol instalazioa erabiltzeko ireki eta itxeko ordutegia 8:00etatik 22:00etara izango da, asteko zazpi egunetan.

Instalazioek aireztapen nahikoa dute atek irekita eduki beharrik gabe erabili ahal izateko; izan ere, atek irekiz gero, arriskua dago eraikinaren kanpoaldean paseatzen ari diren kanpoko pertsonak sartu edo hurbiltzeko kontrolik gabe. Hala ere, ahal den guztietan, erabiltzaileei gomendatzen zaie aireztapena handitzea atek irekiz.

Erabiltzaile bakoitza arduratuko da instalazioak 10 minutuz aireztatzeaz, horiek erabili ondoren.

Denboran zehar ezingo da ondoz ondoko erreserbarik egin, erabilera bakoitzaren ondoren aireztapen eta desinfekzio beharrak daudelako. Beraz, 30 minutuko tarte beharko da erreserben artean.

Positibo eman aurreko 48 orduetan instalazioetako erabiltzaile izan den kasu positibo bat ezagutuz gero, berehala erreserbak baliogabetu eta instalazioak itxiko dira, harik eta garbitu eta desinfektatu arte. Prozedura hori egin ondoren, ohiko moduan berrabiaraziko da erabilera.

Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn oso-osorik argitaratu ondorengo hogeita hamargarren egun baliordun jarriko da indarrean, behin betiko onartu ondoren.

Arkauti, 2021eko irailaren 21a

Lehendakaria

BLANCA MONTIEL IÑIGUEZ DE HEREDIA